

# B

BARREN



**“Garaipen  
gazi-gozoa  
izan da”**

**Ovidio Campello,  
PSE-EEko zinegotzia Elgoibarren**

# Elgoibar

## Residencial Géminis

Hobeto bizi!



**Etxebizitza**  
**berri eta eksklusiboak**  
garaie eta trastelekuekin  
**266.000** eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:  
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

**943 74 80 92**  
[www.grupogsi.com](http://www.grupogsi.com)



**Gsi**

(Ongizate eremuak)

## “Egunkaria” aurrera

Badira bost urte Donostiako Antiguako tunelaren ondoan milaka herritar “Egunkaria-ren” alde eta injustizia eta epaile baten burugabekeriaren kontra, gure eztarriak apurtzeko prest elkartu ginela. Manifestaldiaren burua nire aurrean osatzen ari zen, eta bertan ikusi nituen Euskal Herriko politikari, idazle, ekonomista, kazetari, sindikalista, irakasle, enpresari eta hainbat arlotako ehunka jakintsu, baina batez ere, milaka etxekoandre, ikasle, jubilatue eta langile, herria sentitu nuen eta horrek izugarritzko zirrara sortu zidan.

Egun horretan ikusitakoak eraman ninduen gerora bizitza publikoan parte hartzera. Aspalditik barnean sentitzen nuena aurrera eramatea zen hurrengo erronka. Baina, gainera, nire betiko debildadea indarberritu egin zen: herritarren partaidetza. Ez da posible herri honek duen indarra eta konpromisoa manifestaldietara soilik mugatzea, eta hori zuzendu nahian, gure Elgoibar honetako Udaltxean herritarren partaidetza bermatzea zen eta da nire nahia. “Egunkaria-ren” inguruan gertatutakoak eta Estatu espainiarraren jarrerak bizitza aldatu zidaten niri, baina zer esanik ez “Egunkaria-ko” langile eta nagusiei (Torrealdai, Uria, Auzmendi...), 18/98 makro sumariokoei (Mendizabal...), Atuxa kasukoei (Atutxa, Knorr, Bilbao), partiduak ilegalizatzearen ondorioz eramandako jendeari (Arnal-

do...), baina sigla eta kolektibo-  
boez gain, milaka euskaldun eta euskaltzaleri.

Ez dut inondik inora onartuko Estatu espainiarrak sines-tarazi nahi diguna, eta munduari erakusten diona: erakundeetatik kanpo euskara zabaltzen edo bere alde lan egiten dutenak ETAkoak edo ETAren sarearen parte garelara.

Sar nazatela kartzelan oraintxe bertan, euskararen alde lan egiteko beti prest aurkituko naute eta, beti egin dudan moduan.

Unai Zulaika



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com


**“Sar nazatela kartzelan oraintxe bertan, euskararen alde lan egiteko beti prest aurkituko naute eta, beti egin dudan moduan”.**

**www.elgoiBARREN.net**

**Aste Santuko oporrak hartu ditugu!**

**Martxoaren 25ean itzuliko gara.**





**“Munduari bueltia  
emateko  
ilusiuarekin  
hasi giñan  
lanian  
1963an”**

**FELIX  
ETXEBERRIA**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEKO SORTZAILLIETAKUA

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartiak 45 urte bete ditu. “Erderiak ez ittotzeko” sortu zeben Elkartia, 1963ko martxuan, Felix Etxeberriak eta Jesus Larrañaga Plaentxik, Sabin Osororen laguntziarekin. Munduari bueltia emateko intenziuarekin hasi ziran lanian, ilusiuaren motorrak mobittuta; baiña 45 urte pasau dira, eta etsitta ikusi dogu Felix; motorra erreta izango baleu moduan.

## **Elkartia sortu zenduenetik 45 urte pasau dira, Felix.**

Bai, eta zahartu egin gera! Orduko kontuak akordura ekarri eta penatu egitten naiz. Batzuek hill egin dira, eta beste batzuek hoztu. Orduko girua faltan botatzen dot; danok berriz ere alkartzeko gogua sentitzen dot, baiña ezin da. Sasoi haretan bat eginda geunden, eta danok geunden edozertarako prest; bai Elgoibarko Izarrako aginte-karguak hartzeko eta baita peoi lanak egitteko ere. Zenbat ordu pasau ete genduzen lanian! Eztabaidak izaten genduzen, baiña aurrera egitteko ezinbestekuak dira diskusiuak.

### **Goguan daukazu zelakua izan zan hasieria?**

Bai. Hasieran dana kristal haundi bat bezela ikusten gendun. Kristala zikin-zikin zagan, eta garbitzen hasi giñanian, enel, garbitzeko gauza giñala konturatu giñan. Eta kristala garbi lagatzeko ilusiuarekin hasi giñan lanian. Baiña urtiak aurrera egin debe, eta garbitzen jardun gendun kristala zikinduta ikusten dot, berriz ere.

**“Elkartia sortu gendunian, ez naban pentsatzen 45 urtian Elgoibarko Izarraren biharrik egongo zanik”**

### **Elgoibarko Izarrak, orduan, ez dau zuek espero edo nahi zenduena eman?**

Eman egin dau, baiña poliki-poliki emendatzen jun dala uste dot. Munduari bueltia emateko ilusiuarekin hasi giñan lanian; herri osua euskeriaren alde jartzeko helburuarekin. Momentu haretan, gaiñera, hau posible zala ikusten gendun. Baiña, urtiak jun dira eta eukaltzaliok ere euskeria baztartuta daukagula ikusten dot. Geu usteldu gera. Zaila izango da guk sasoi haretan amesten gendun mundua ikustia.

### **Asko aldatu da 45 urtiotan jendiaren jarrera?**

Bai. Elkartia sortu zanian ere ez zagan kontzientziarik, baiña ikusten zan zeozer bazatorrela. Herritar gehixentsuenok gendukan barruan zeozer, euskaldun izateko nahixa zala esango neuke nik. Elgoibarko Izarraren zeregiña herritarren nahi horri laguntzia zan.

Gaur egun, berriz, biharra badago, baiña jendia ez dixe iñora euskeriarengaitik. Egunkariaren kasuan, adibidez, hamabi lagun kartzelara juteko arriskuan daude, eta jendiaren artian ez da ezer ere komentatzen; ez komentatu, eta ez sentitu.

### **Faltan botatzen dozu hasiera haretako ilusiuak?**

Bai, ez dot sasoi haretako ilusiorik ikusten. Orduan lanerako goguak eta ilusiuak bultzatuta mobitzen giñan; mundua aldatzeko ilusiuak eraginda egoten giñan berandura arte lanian. Gaur egun, berriz, dirurik ez badago, ez dago ezer ere. Elgoibarko Izarrak egingo al leuke aurrera Elkartian dirurik ez balego? Gaur egun, nere ustez, diruak eusten dio Elgoibarko Izarrari.

### **Orduan ere biharko zenduen, ba, dirua?**

Biharra bai, baiña ez zagan dirurik; sasoi haretako Elgoibarko Izarraren diru-itturri bakarra bazkidiaren kuotetatik jasotzen genduna zan. Bazkidiaren kuotetatik etaratakuarekin moldatzen giñan. Ikastolako maisu-maistrak, adibidez, ez zebezu diru haundirik jasotzen; hillian 1.500 pezeta kobratzen hasi ziran. Gaur egungo irakasiak egingo al leukebe lanik orduko soldaten konformidadian?

### **Eta Udalak ez zion Elgoibarko Izarrari diru-laguntzarik ematen?**

Diru-laguntzarik Udalak?! Ez diru-laguntzarik eta ez bestelakorik ez gendun udaletxetik jasotzen. Handik jasotzen gendun bakarra Ikastolia ixteko amenazua izaten zan. Bueno, behin bi duro eman ziguzen ume bakoitzeko arteera bat antolatzeko.

### **Zorionez, Udalak bestelako jarrera dauka gaur Elgoibarko Izarrarekin, Felix.**

Bai, hori hala da, baiña Elgoibarko Izarra ezin da limosna eske ibilli, Afrikako beltzak bagiña moduan. Egunen batian aldaketa politikoren bat gertatzen bada eta diru-itturriak mozten badira, nun geratuko da Elgoibarko Izarra? Gure herrixarentzat hain garrantzitsua dan gai batian ezin dogu urtero-urtero hitzarmena negoziatzen jardun. Euskeriaren aldeko lanian ziurtasun gehixago bihar dala uste dot. Bestela, adibidez, langilliak beste tokiren batera alde egitteko arriskua dago.

### **Diruak alde batera laga, eta esaiazu zela ikusten dozun Elgoibarko Izarraren egungo egoeria.**

Ez dakitt zela moldatzen zeraten, baiña hamen martxa haundixa daguala ikusten da. Hori bai, ez dakitt elkartiak egitten daban la-

nari probetxurik etarutzen jakon. Egindako lanak ematen al dau fruitturik?! Nik dudia daukat. BARRÉN, adibidez, irakurtzen al dau jendiak? Aurreko batian, adibidez, zortzi lagunek “BARRÉNeke erretratuan ondo urten dok, eh!” esan zien, baiña birek baiño ez zien esan “artikulu ona idatzi dok BARRÉNeke”.

**“Elgoibarko Izarrak egitten daban lanari ateratzen al jako pobetxurik? Ni ezetzian nago”**

### **Biharrezkua da, orduan, Elgoibarko Izarrak gure herrixan?**

Bai, Elkartia biharrezkua da. Elgoibarko Izarrak egitten daban lana egingo ez balitz, asko galduko leuke herrixak, baiña jendiak ez leuke pena haundirik hartuko desagertuko balitz. Elkartia sortu gendunian, ez naban pentsatzen 45 urtian Elgoibarko Izarraren biharrik egongo zanik; guk nahi genduna lehenago lortuko gendula uste naban, baiña, martxa honetan, beste 45 urte ez ezik, milla eta piku urte ere biharko dittugu herri hau euskalduntzeko.

### **Zertan zentratu bihar da, zure ustez, gaur egungo Elgoibarko Izarra?**

Jendiaren kontzientzia da landu bihar dana; jendiaren kontzientzia piztu bihar da berriz ere. Ez dakitt zela egitten dan hau – aspiriñak baleude horretarako–, baiña hori da, nere ustez, Elgoibarko Izarraren zeregiña. 1963an itto biharrik mobittu eragin gintuan, ez gendun erderiaren itsasuan itto nahi. Eta gaur egun, berriz, ez da ittomen hau sentitzen, nahiz eta ura leporaiño daukagun.

### **Etsitta bezela ikusten zaitut, Felix.**

Bai, ez dot batere argi ikusten euskeriaren etorkizuna. Iraungo dogu, baiña goitiki behera guazela uste dot. Euskaldun mordua dago euskeriarekin bat ere harremanik ez daukana. Ikastetxieri esker gero eta jende gehixagok ikasiko dau euskeria, eta horrek ematen diit esperantza pixkat bat, baiña gora begiratzen badogu, gero eta lotsa gitxixago dago.



**Zezenketen araudi berria aurkeztekoa da Eusko Jaurlaritza. Udalak bi alegazio aurkeztu ditu, sokamuturraren izaera alda ez dezaten: batetik, 16 urtetik beherakoak parte hartzearen aldekoa da, “kontrolaezina” delako adingabeen partaidetza eta, bestetik, ez dago ados aseguruaren kostuak handitzearekin.**

**Andoni Iturbe**

**S**okamuturrik gabe herriko jaiak ez lirateke hain erakargarriak izango. San Bartolomeetako gatz eta piperra dira neurri handi batean. Baina oraindik argitzeke dago sokamuturraren etorkizuna. Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak du azken hitza. Araudi berria prestatzen dabil zezenen ikuskizunen baldintzak mugatzeko, eta horien artean sokamuturraren auzia legoke. Asmoa ez da sokamuturrekin amaitzea, neurriak hartzea baizik.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, 1996ko legedia eguneratu egin behar da, eta segurtasun juridikoa bultzatu. Horrek eragin zuzena izango du sokamuturrean. Izan ere aseguruaren kostuak igotzeko adostuko dute segurtasun-berme guztien onerako. Esaterako, zehaztu egingo dira anbulantzien kopurua eta jarri beharreko isunak. Horiexek dira, araudi berriaren faltan, zirriborroak aurreratutako baldintzak. Baina 16

urtetik beherako gazteen parte hartzea debekatzeak piztu du ika-mika gehien. Era berean, profesionalizazioaren mesedetan, sokamuturraren antolatzaileek lana ondo egin dezaten, Udalek hitz eman beharko diete lekua aproposa dela eta diruz estali beharko dituzte sortu daitezkeen arazoak. Proiektu horren zirriborroak ez du ganadudunen kezka baretu. Agustin Mugerza abeltzainaren ustez, gastu gehiagori aurre

egin beharko diete Udalek, eta zenbait kasutan hiru saio egin beharrean, seguruena gutxiago egin beharko dituzte, garestiago izango baitira.

### **Alegazioak**

Eusko Jaurlaritzako arduradunen esanetan, “Elgoibarko erakunde bakar batek ere” ez dio Herrizaingo Sailari alegaziorik aurkeztu. Hala ere, Udalek bere interesak Eudelek Bilbon egindako bileran defenditu zituen. Bi alegazio aurkeztu zituen Blanca Salegi Kultura teknikariak: lehenengoan, 16 urtetik beherakoen parte hartzea debekatzea “kontrolaezina” dela argudiatu zuen, herriko sokamuturrak badituelako berezitasunak. “Hiru orduko ikuskizun batean gazteak edozein puntutatik gertura daitezke”, adierazi du. Ido horretan, uste du herri bakoitzean sokamuturrak bere nortasuna duela, eta ez direla gauza bera Elgoibarkoa eta Az-

**Sokamuturra saioak garestitzen badira, gutxitu egingo dira**



## Agustin Mugerza

Abeltzaina

### “Udal handiek bakarrik egin ahal izango diete aurre gastuei”

#### Zein da zuen jarrera?

Ados jartzeko prest gaude. Lehen ere arauak bazeuden, baina orain gogortu egin nahi dituzte.

#### Murritzapenen aurka zaudete?

Ez. Gaur egun denak egon behar du kontrolatuta. Baina umeen kontu hori...

#### 16 urtetik aurrerako gazteek ezingo dute parte hartu araudi berriaren proiektuaren arabera...

Baina gazteenek izaten dute ilusio gehien. Bailara txikietan garrantzitsua da sokamuturra.

#### Sokamuturrak Euskal Herrian duen tradizioa kontuan hartu dute?

Ez, gainera ez dute behar bezala jokatu. Lau enpresarioen baietzarekin atera zuten zirriborroa.

#### Zirriborroaren berri izan zenutenean, urduri jarri zineten?

Ez zen gure aldekoa. Udal handiek aurre egin ahal izango diete gastuei, baina txikienean, ez. Kolpe ederra izan zen zirriborroaren kontua, baina araudi berriaren zain gaude.

#### Indarrean dagoen legedia 1996. urtekoa da. Zertan aldatu da sokamuturra azken urteotan?

Asko. 1991. urtean Bizkaia aldean ez zegoen bailararik sokamuturrik gabe. Edozein unetan egiten ziren: goizaldeko ordubietan, bostetan... Orduan beharrezkoa zen legedia.

#### Noiztik ari zara sokamuturrak antolatzen?

Azken 35 urteotatik.

peitikoa edo Azkoitikoa. Elgoibarkoan ez dago sarrerarik partaideak sartu eta nor-tasan agiria aurkezteko. Araudi berriaren zirriborroak, berriz, argitzen du kontuan hartu beharko dela adingabeak nondik sartzen diren. Baina ez du zehazten ikuskizun guztietan hesiak jarriko diren ala ez.

Kontuan izanik jai giroan ospatzen dela sokamuturra, araudi berriak Udalen eskaerak aintzat hartu beharko ditu. Horien artean, Blanca Salegik aurkeztutako bigarren alegazioa: Elgoibarko Udalaren ustez, euren gain dagoeneko hartzen dituzten aseguru-kostuak nahikoak dira. Sokamuturra berme guztiekin egin dadin, Udalak hiru anbulantzia ere jartzen ditu herritarren zerbitzura.

Agustin Mugerzak gertutik ezagutzen du sokamuturraren tradizioa. Eusko Jaurlaritzarekin bildu zen beste abeltzainekin batera. “Ez dakigu zer irtengo den guzti honetatik”, adierazi du. Inongo kon-

trolik gabeko sokamuturra ere bizi izan du beste sasoi batean. “Telefonoz deitu eta zinta batzuk jarriko zituztela esaten ziguten eta batzuetan obretakoak jartzen zituzten. Esaten genien zezenak ahuntzak ez zirela”, gogoratzen du.

#### Baldintza ugari

Elgoibarko sokamuturra antolatzen du bazkidearekin batera, eta bospasei laguneko lan-taldea du sokarekin ibiltzeko. Jose Luis Arana *Tati-k* askotan parte hartu izan du sokamuturretan. Eta jarraitzeko asmoa du. “Baldintza asko jartzen ari dira, baina segituko du. Ez da erraza izango 16 urtetik beherakoak ez agertzea”, dio, bera ere “txikitatik” irtendakoa dela argi azalduz.

Herrizaingo Saila “laster” aurkeztekoa da araudi berria baina alegazioak eta jai asko gainean daudela ikusita, ez dute erraza izango.

## ARAUDI BERRIA

Mota askotariko zezen probak hartuko ditu kontuan araudi berriak, garantia guztiak aintzat hartuz. Asmoa denboraldi berrirako indarrean jartzea bada ere, alegazioek eta jaiak atzera lezakete.

## SEGURTASUNA

Hori izango da araudi berriaren helburua, segurtasuna izatea. Eta antolatzaileek behar bezalako neurriak hartuko ez balituzte, Ertzaintzak zezenak-eta nagusi diren ekintza tradizionalak bertan behera laga beharko litzuzke.

## ZEZENAK

Zezenen pisu neurketekin zorroztak izango dira. Eta ezin izango dituzte hil tradizioa duten jaietan (zezen korridak) eta Orokorretan. Sabeleko behiak hautatuko dira. Hori izango da ikuskizunen berrikuntzetako bat.

## ORDEZKARITZA

Ikuskizunen Euskal Kontseiluaren barnean Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Industria, Kultura eta Osasun Sailak eta Eudel daude. Araudi berriaren aurkako alegazioak aztertu ondoren, Kontseiluari dagokio araudia indarrean jartzea.



Sokamuturra mugatzeko araudi berria jarri nahi du martxan Eusko Jaurlaritzak.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Etorkizunak izen bakarra duelako: Independentzia!**

Aurpegia estalita kolpatzen gaituzten txakur amorratuen herrian hazitako gazteria gara, tortura eta espetxearen gau ilunaren mehatxuak jateko arriskua duen gazteria. Ez dute herri hau aitortu nahi izan eta konponbidea irabazi, askatasunarekin gehiago dutelako galtzeko irabazteko baino. Eta euren legearen izenean hitz egiten duten bitartean kalean bizitzera kondenatzen gaituzte emakumeok, gazteok, herri-tarrok...

Euroaren menpeko garen gauera ekarri gaituzte, etsiko dugulakoan, bizitzari eta herriari bizkar emango diogunaren uste erdi ustelean. Baina ilunabar horretan, Independentzia hizki larriz idaztea erabaki dugu; Gaztetxea, Herri Eskola, Kontrainformazioa, Parekidetasuna eta Eskubideak idaztea erabaki dugun moduan.

Amestu dugu hamaika aldiz gauaren ilunean argiz idazten genuela "Independentzia" Euskal Herriko zeruan, iluntasunean ikusi egiten baitugu, argitasunean sinesten dugulako. Hori goaz egitera. Euskal Herriko gazteriak, 4 egunetan zehar Lezon, kontzertu, mahainguru eta tailerretan; ezagutuz, gozatuz, eztabaidatuz... barre algaren artean borroka eta jaia uztaiz Independentzia idatziko dugu. Eta zuk plan hobetik ba al duzu?

Gazte Topagunea ☺

**Gu ere bai**

Herritar askok gure solasaldietan erabiltzen dugun gaia izaten da Elgoibarko hi-

rigintza kaxkarra, baina hor gelditzen da, ahanzturan. Amaiak eta LOK euren kezkak plazaratu dituzte BARREn bidez. Guk ere aukera ona dela pentsatzen dugu, eta guztiok gauza bera egitera gonbidatzen zaituztegu, ea gure agintariei pentsarazten diegun.

Urteetan zehar Arau Subsidiarioen planeamentua behin eta berriz aldatu dute, ez dakigu zer irizpiderekin, baina ez da beti izan onerako: Madala, Ikastola aldea, Arregitorre, Gabilondo... Politiko asko pasatu dira azken urteetan, eta guztiok joera bera erakutsi dute. Kasualitatea ote? Teknikaria berriz aspaldian bera, kasualitatea? Ez zuten ba bere esku utziko gure herriko hirigintza, bera baita profesionala, baina, kontuz, profesional izatea ez doa beti gauzak ondo egitearekin bat. Ezin da ulertu nola egin daitezkeen Babes Ofizialeko Etxebizitza hain itsusiak. Merkeago egin behar direla, ados, baina merkea polita ere izan daiteke. Hor ditugu Ikastola aldekoak, pentsa ze itxura duten, "Alcala-Meco" deitzen zaie, eta orain Gabilondonekoak, Elgoibarko sarreran. Guk bataiatu dugu jada: "Titanic". Oraingo alkateak ez du zer ikusirik izango orain artekoarekin, baina eskatuko genioke erantzukizunetz jokatzeko etorkizuneko jardueretan, adibidez, Madala, Geminis edo Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxeen kasuan, eta batez ere zaindu alde zaharrea egingo direnak, esate baterako Nafarroa plazan (Belok) eta Plaza Handian (Farmazia). Utzi diezaiegun Elgoibar ederragoa ondorengoei.

M.L eta C.A. ☺

**Lotsa**

Bai, lotsa sentitu naban pasa dan barrixaku arratsaldean, Arrasaten pertsona bat eraila izan ondoren, beste batzuk Elgoibarko kaleetako paretak papelez estaltzen ikusi nittunian iñungo erreparorik gabe. Zenbait politikariren aurkakoak eta abstentziaren aldekoak. Haiñ inportantiak ziran kartel hórrek? Momentu horretan ipini beharrekoak?

Neri errespetu falta eta lotsagarria iruditu jatan. Gauza bat da "kondena" hitza ez erabiltzia, aurka gagozela esateko, baiña badagoz beste modu batzuk, badagoz keiñuak hori adierazteko. Azken egunotan hainbeste bider entzun diuet "ezker abertzalekueri" demokraziarik ez dagola, idea politikuegaittik atxilotu egitten dituztela. Egixa da, baiña ze demokrazia da idea politikuegaittik bizitza kentzia eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatzia?

Abertzalia naiz, ezker abertzalekotzat euren buruak daukatenen adinakua, eta independentzia nik ere nahi dot, baiña ez edozein preziotan, ez pertsonen bizixaren gaiñetik. Gora Euskal Herrixa askatuta, lotura guztietatik, baita ETAngandik ere.

L.Z. ☺

**OHARRA**

Aste Santua dela-eta, martxoaren 21ean ez dugu **BARREN** astekaria kaleratuko. Hurrengo alea martxoaren 28an jasoko duzue.

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Ainara  
Sedano


Epa, Noe, eta ongietorri bai zuri eta bai niri orrialde honetara! Behin idaz-

ten hasiz gero, sekretutxoak kontatzen hasi beharko... Gaur goizean lanera nentorrela Beatles-en *Here comes the sun* abestia jarri dute irrastian eta eguna bikain hasi dut berarekin.

Zuk, Noe, goizetan, bidaia luze xamarra edukitzen duzu lanera, eta bide horretan ez dakit lanean pentsatzeko, lo kuluxka egiteko edo ametsetan jarraitzeko erabiltzen duzun. Nik bide motz xamarra daukat baina... askorako ematen didate hamar minutuek autoan. Lagunek barre egin izan didate behin edo behin, nire autoa ezagutzen dutenean kasu egiten didatelako eta horren truke... nik kasurik ez!!! Ez nahi ez dudalako, zoroek bezala abesten joaten naizelako baizik, beste ezerri erreparatu gabe.

### “Nik neure buruari ere egiten diot barre, goilara bat mikrofono modura hartuta”

Behin edo behin semaforo batean geldirik egonda, edo errotondetan ondoko autoko gidaria irrifarez begira ere topatu izan dut sekula. Zer egingo diogu ba! Ni pozik noa abesten, eta ondokoak negar egiten ez duen bitartean... terapia itzela! Bakarrik hitzegiten ere topatu dut nire burua sarri, eta bakarrik etxean nagoenean... festa!! Dantza eta dantza, nola egiten dudan ere inporta gabe, edo abesten, eta ingelesez bada abestia... asmatzen! Zoratuta nago ala... zuk ere egiten duzu, Noe? Aitortu... Egin ezazue barre denok, ona da-eta. Nik neure buruari ere egiten diot barre goilara bat mikrofono modura dudala abesten nagoela konturatzen naizenean. Baina pozik! Sabinaren abesti batek zioen bezala “que el fin del mundo te pille bailando...”.



Noemi  
Otegi

Ei neska!!! Harrapatu nauzu, baina alegia nire Gasteiz bitarteko bidaia luzeagoa izanik, zuk egiten duzuna biderkatzeko gai izaten naiz! Goizetan serio xamar hasten dut kontua eta irratiko berriak entzuten joaten naiz, bueltakoan berriz komeriak!!! Hobeto pentsatzen hasita, goizean ere makina bat eztabaida izaten ditut irrastian aipatzen diren berriak direla eta, batzuetan esatariekin eta beste batzutan baita kazetariekin ere! Edozein debate irabazteko gai izaten naiz ni neu bakarrik autoan noanean. Arratsaldeetan, berriz, kantuz bizi dut nik ere bidaia, Edith Piaf izan da gaur nire laguntzailea, *Sous le ciel de Paris*, *Lily Marlene*... ikusten dezunez aspaldiko kautuekin ibili naiz gaur, ez dizut kontatuko ba nolakoa den nire frantses maila, ezta?

### “... eta ni kantuan eroen moduan, edo debateak nik neuk egiten”

Tira, zure teoriari jarraiki, mundiala, noski. Hala iruditzen zait niri, behizat kantuan noanean. Ba al dakizu zein izaten den nire momenturik traketsena? Bapatean jabetzen naizenean nire aurreko kotxeko gidaria, erretrobisoretik niri begira dagoela, etengabean bista altxatuz zertan ari naizen asmatu nahiean, eta ni kantuan eroen moduan, edo debateak nik neuk egin eta nik neuk irabazten!! Ez gara beraz hain desberdinak, zozoak beleari...

Ongi etorri, Aina eta Noeren arteko berriketetara, denerako beta izango degu baina orokorrean ongi pasatzea da gure helburua eta, bide batez, zuek ere momentu onak igarotea gurekin. Baina ez pentsa zuen kritikak, onak zein txarrak, gehiegi eraginduko gaituztenik, Ainak esan duen bezala gu pozik gauden bitartean...



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Foru Aldundiak garraio publikoan ibiltzeko txartel bakarra jarri du martxan

## Erabiltzen duzu autobuserako txartel bakarra?



### Nekane Usobiaga

18 urte, ikaslea

Bai, erabiltzen dut. Txartela-rekin merkeagoa da bidaia, baina nik ez dut autobusa gehiegi erabiltzen eta ez dut oraindik deskonturik igarri. Erabiltzeko erosoa da txartel bakarra.



### Tomas Egaña

76 urte, jubilatua

Ez, jubilatuen txartela daukat eta horrekin ibiltzen naiz. Mendarora, Eibarrera edo Donostiara berdin ordaintzen dut. Txikito baten prezioan Amaran nago! Zer dago hori baino hoberik?



### M<sup>a</sup> Luisa Bautista

48 urte, sukalde laguntzailea

Bai. Altzolan egiten dut lan eta egunero bi joan-etorri egiten ditut. Diru asko gastatzen nuen autobusean. Otsailean atera nuen txartela eta 20 euro aurreztu ditut hila-beteen.



### Jon Antxustegi

57 urte, pentsioduna

Ez. Jubilatua txartela daukat eta horrekin deskontu bera egiten didate. Bestela aterako nuke txartel bakarra. Autoa eduki arren autobusa asko erabiltzen dut, erosoa da eta.

10<sup>eko</sup>  
TXIKIAN



MAIALEN  
ASTIGARRAGA

Gaztelekuko hezitzailea

### 1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Herriko plaza da Elgoibarko nire lekurik gustukoena. Zatarrena, berriz, Pedro Muguruzatik gertu dago: Toletxetik aurrerako kale horiek; lagata daude.

### 2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Herri giroa falta zaio. Jendea mugitu egiten da, baina oro har oso indibidualista da. Ekintzak antolatzen dira, eta jendeak ez du beti erantzuten. Soberan ez dauka ezer ere.

### 3. Nolakoak dira elgoibartarrak?

Oso kuxkuxeroak eta batzutan itxiak. Nire ustez, irekiagoak izan behar-ko genuke.

### 4. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Asko ditugu, Arnaldo Otegiengandik hasi eta kirolari, idazle eta irrati esatariengana arte.

### 5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, nahiz eta nik kirolik ez egin.

### 6. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.

Gabon zahar feria edo Txiki Eguna.

### 7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Garbi-garbi dagoenean. Debagoienetik garbi-garbi bidaltzen digutenean, beharbada bai.

### 8. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, baina garraio publikoa ez dut ia erabiltzen. Ondo komunikatuta dago Elgoibar.

### 9. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizitzera? Nora?

Bai, joango nintzateke beste herri batera bizitzera. Mundua ezagutu egin behar da.

### 10. Ipini nota gure herriari, 0tik 10era.

6,5.

**Mintxetako aparkalekuan argirik gabe egon gara zenbait egunetan:**

“Iluntzeetan jende asko ibiltzen da Mintxetako aparkalekuan korrika edo txakurrarekin paseatzen eta joan zen astean argirik gabe egon ginen zenbait egunetan. Udalari eskatu nahi izango nioke horrelakoetan neurriak lehenbailehen hartzeko”.

**Jendeak edozein modutan aparkatzen du Plaza Txikian:**

“Plaza Txiki erdian autoak ilaran aparkatzeko ohitura hartu du jendeak eta ondo aparkatuta dauden autoei sekulako traba egiten diete. Ez dago buelta emateko edota aparkalekutik ateratzeko lekurik. Udaltzainek zorrotzago egin beharko lukete lan horrelakoetan”.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12

**Eskerrik asko Nagusilan Elkarteko kideei:**

“Inauteri egunean San Lazaro Egoitzako nagusientzako festa txiki bat antolatu zuten, eta giro oso onean pasatu genuen denok arratsaldea. Tonbola eta beste hainbat joko izan genituen egoitzan eta arratsalde polita izan zen. Txalotzekoa da Nagusilan elkartekoek egiten duten lana”.

**Heritar batek Itziar Amondarain piano jolea txalotu nahi du:**

“Hunkigarria izan zen Itziar Amondarainek Musika Eskolan eskaini zuen kontzertua. Emozionatu egin nintzen. Jende gutxi izan zen kontzertuan eta pena eman zidan. Horrelako ikuskizunak gutxitan izaten dira eta jende gehiegok gozatzea gustatuko litzaidake”.



## I. URTEURRENA



2007ko martxoaren 13an hil zen, 83 urte zituela, **Maria Zabala Larrañaga andrearen** oroimenez I. urteurreneko meza izango da, igandean, martxoak 16, goizeko 10:00etan Altolako San Juan Bautistaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## I. URTEURRENA



2007ko martxoaren 12an hil zen, 76 urte zituela, **Jose Jaio Iturriaga** jaunaren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, martxoak 15, 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## 276.400 euroko diru-laguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari 2008ko proiektuak eta egitasmoak finantzatzeko

Elkartearen aurrekontuaren %45 inguru finantzatuko du Udalak

**E**lgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak 2008ko hitzarmena sinatu dute. 276.400 euroko diru-laguntza emango dio Udalak elkarteari, 2008an gauzatu eta garatu nahi dituen proiektu eta egitasmoak finantzatzeko. Aurten ere diru-laguntza hori bi Udal sailetatik bideratuko da: Euskara Batzordeetik 165.000 euro, eta Gazteria Batzordeetik 111.400 euro.

Gazteria Batzordeak haur eta gazte-txoekin zerikusia duten proiektu eta jarduerari lagunduko die, eta Euskara Batzordeak gainontzeko proiektu eta egitasmoei.

Proiektu eta programa batzuk bere osorik finantzatzen ditu Udalak (Gurean Bai-Hitzarmena, Kuadrillategi programa eta Euskara Errefortzuak). Beste egitasmo batzuentzako, berriz, aurrekontuaren zati bat ematen du.

### Eskerrak

Elgoibarko Izarrak 606.600 euroko aurrekontua dauka 2008rako (100.700.000 pezeta inguru), eta Udalak emandako dirulaguntza aurrekontu oso-



aren % 45 inguru da. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Udalari emandako diru-laguntzagatik.

### Proiektuak eta dirulaguntzak

Eskumako kodroan Elgoibarko Udalak proiektu bakoitzari ematen dizkion laguntzak agertzen dira:

- Atxutxiamaiak: 70.000 euro
- BARREN: 55.000 euro
- Haur eta gazteak: 40.000 euro
- Gurean Bai-merkataritza: 30.000
- Kuadrillategi: 28.500 euro
- Euskara errefortzuak: 18.500 euro
- Kiribilka: 14.500 euro
- elgoiBARREN.net: 6.200 euro
- Kultur jarduerak: 3.000 euro

## Altzolan okupatutako etxeetako bat erori egin da



Pasa den ekainean Altzolan okupatu zuten Aurrenetxe etxebizitzaren zati bat erori zen joan zen zapatuan, trenbidea dagoen alderantz. Goizeko 11:30ak aldera iritsi ziren ertzain eta udaltzainen esanetan, ez zen zauriturik egon. Zubibai Elkarteko kideak kezkatuta daude etorkin okupen gaiarekin. Euren esanetan, "ez dituzte Altzolako bizilagunak errespetatzen eta auzo guztia zikinkeriaz beteta lagatzen dute". Eibarko Epaitegian zita eskatu dute bizi duten egoera salatu eta irtenbidea emateko, baina oraindik ez dute epailearen erantzunik jaso.

## Pertsonaia **Fernando Bert**



Fernando Bert elgoibartarra aske utzi zuten joan zen barixakuan, martxoak 7, 12.000 euroko bermea ordaindu ondoren. Agenen atxilotu zuen Frantziako Poliziak 2002ko azaroan, ETAko kide izatea egotzita, eta 2006ko abenduaren 14an espainiaratua izan zen. Soto del Real espetxean egon zen lehendabizi eta, ondoren, Algecirasen.

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak omenaldia egingo dio bihar, martxoak 15, Plaza Handian eguerdiko 12:30ean. Ondoren bazkaria izango da.

## Zenbakia **645**

Mendaroko Ospitalean 645 jaiotza izan ziren 2007an, iaz baino %10 gehiago eta 2002an baino %22 gehiago. 1992an Ospitalea sortu zenetik, erditze kopururik handiena izan da. Azken urteotan, gorakadarik nabarmenena izan du zerbitzu horrek. Gainontzeko zerbitzuak ere hazi egin dira azken urte honetan, baina gutxiago. Ospitalizazioak, esate baterako, 7.300 izan ziren iaz (2006an baino %5 gehiago); larrialdiak, 31.150 (%0,8 gehiago); kontsultak, 141.000 (%0,5 gehiago); eta ebakuntzak, 500 (%2 gehiago).

## Irudia **Kontzentrazioa**

Eudelek deituta, Isaias Carrascoren hilketa gaitzesteko kontzentrazioa egin zen joan zen zapatuan (martxoak 8) Plaza Handian. Eguerdiko 12:00etarako jarri zuten hitzordua, eta lagun mordoa hurreratu zen bertara. Herritarrekin batera, Alfredo Etxeberria alkatea eta EAJ-PNV, EA, PSE-EE eta EB-Aralar alderdietako zingotziak izan ziren ordu laurdeneko ekitaldi ixilean.



## **150 urteko zuhaitza moztu dute Trenbide kalean**

Uribe Jauregiko lorategian landatutako zuhaitzak agur esan digu aste honetan. Trenbide kalean eman ditu 150 urte eta 18 metro inguruko altuera zeukan. Eguazten goizean moztu zuten zuhaitza Udaleko langileek, ustelduta eta erortzeko arriskuan zegoelako. Udazkenean beste zuhaitz bat landatuko dutela adierazi dute.



## **Ustez auto bat ostu dute bi gaztek Mendaron**

Ertzaintzak adin txikiko bi gazte atxilotu zituen joan zen astean Mendaron ustez auto bat lapurretan egiteagatik. Kalez jantzitako bi ertzainek Mendaro eta Deba artean, Sasiola inguruan, topo egin zuten ostutako Opel Astra autoarekin, Ertzaintzaren arabera. Debaraino jarraitu eta semaforo baten parean geldiarazi zituzten bi gazteak. 17 urteko bi mutil identifikatu eta atxilotu zituzten. Ertzaintzaren arabera, Mendaroko depuradora inguruan ostu zuten autoa.

## **Saharako umeak udan etxean hartzeko kanpaina**

Saharako Frente Polisarioarekin elkarlanean, Elgoibarko Udalak udan Saharako umeak etxean hartzeko kanpaina jarri du martxan aurten ere. Programa horretan parte hartzeko interesa dutenek martxoaren 30era arte daukate izena emateko epea. Informazio gehiago Udaleko Ongizate Sailean (943 74 10 08).

# Ovidio Campello

PSE-EEKO ZINEGOTZIA

**Hirugarrenge legealdia du PSE-EEko ordezkariak Udalean, eta azken astean bizi izandakoa ez du sekula ahaztuko. Batetik, ETAk Isaias Carrasco alderdikidea hil zuen eta, bestetik, bere alderdiak inoizko emaitzarik onenak lortu ditu. Bere ustez, igoera horren arrazoia herrian agertu duten jarrerara izan da. Horrez gain, boto-emaeleek bakea lortzeko sozialistek egindako lana aintzat hartu dutela adierazi du.**

Andoni Iturbe

## “EAJ-PNVtik boto gutxi etorri dira PSOEra”

**Garaipen gazi-gozoa bada ere, balantzerik egin duzue?**

Bai, Elgoibarren emaitza hauek historikoak dira. Orain arteko emaitzarik onena 1982koak izan ziren, baina orduan Mendarok ere zenbatzen zuen. Emaitzok egiaztatzen dute orain arteko joera: igotzen ari gara azken hauteskundeetan, bai udaletakoan, autonomikoetan... Uste dut hau esan digutela boto-emaeleek: gauzak ondo egiten ari garela. Udalean akordioak lortzen saiatu gara, aurrekontuei 30 puntu gaineratu dizkiegu, eta ontzat eman dituzte. Aho batez onartutako aurrekontuen alde bozkatu genuen... Jendearekin hitz egiten ari gara eta jendearen proposamenak Udalera eraman ditugu. Merkadilloaren auzia ere zintziilik dugu. Uste dugu herriaren erdigunean jarri beharko litzatekeela.

**Baina udaleko politikak eraginik izan du Espainiako Kongresurako hauteskundeetan?**

Bai, baina hauteskunde orokorretan ez du horrek barririk eragiten. Baina herrian politika okerra egingo balitz, ez dut uste salto hori gertatuko zenik.

**PSOE Euskal Herriko herri gehienetan, guztietan ez esateagatik, igo egin da...**

Bai, egia da, eta herri txiki askotan ere bai. Igoera orokorra da. Zapaterok ausardia erakutsi du, PSE-EErekin batera, bakeari irtenbidea bilatzeko. Saiakera zintzoa egin du Zapaterok, nahiz eta bagenekien kalterako izango zela Estatuan.

**Orduan, uste duzu jendeak Zapaterori eman diola botoa alderdi baten siglei baino?**

Litekeena da. Bi alderdi nagusi zeuden: PSOE eta PP,



eta bipolarizazio nabarmena gertatu da. Zentzu horretan ezkerak saritu egin du Zapateroren politika soziala. Ez zen gure asmoa beste alderdi politikoak deuseztatzea, ERC eta IUrekin pasatu den moduan.

**Hauteskundearen legea aldatzearen aldekoa zara horiek ordezkari gehiago izan ditzaten?**

Uste dut justua dela proportzionaltasun hori ordezkatzeko, eta zentzu horretan D'Hont-en legea ez da aproposa. Elgoibarren lege horrek, orain arte, kalte egin digu, eta azken hauteskundeetan aldekoa izan da.

**Eta herrian, PSOEren aldeko botoak nondik etorri dira? EAJ-PNVtik?**

Ez dut uste boto asko EAJtik etorri direnik. Alkateak baiezkota esan du, baina Senatuko paperetan ikusi dugu oso gutxi aukeratzen zutela EAJko eta PSOEko hautagairen bat. Beti izan dugu boto gehiago hauteskunde orokorretan udalekoetan baino. Kontraesankorra izan liteke, baina Eibar eta Donostia bezalako hirietan alderantzizkoa pasatzen da, baina aurten ez da horrela izan.

**“Isaias Carrasco ezagutzen nuen, berarekin askotan hitz egin eta bildutakoa naiz”**

**Hauteskunde Autonomikoetan ere PSE-EEK pareko emaitzak lortuko ditu?**

Bai, aukera onak ditugu emaitza onak lortzeko eta, zergatik ez, Patxi Lopez lehendakari izateko. Gipuzkoan bigarren aldiz jarraian izan gara lehen indarra, aurrekoan 5.000 boto eskerekin, eta hauetan 48.000 botorengatik. Isaiasen heriotzak eraginen bat izango zuen, baina aurrekoan ez, eta hala ere irabazi egin genuen. Bizkaian ere joera da EAJ-PNVtik gertuago izatea eta Araban ere irabazten ari gara.

**Zer iruditu zaizu PPK azken legealdian izan duen estrategia?**

PPk Euskadi erabili du igotzeko Estatuko

beste lekuetan, baina Euskadin galdu egin dute. Politika okerra egin dute, bidea zailtzen joan dira eta terrorismoarekin erabilera partidista egin dute. Hori gutxi balitz, ez dut uste politika aldatzeko asmorik dutenik.

**Baina PSOEk Kataluniar zor dio bereziki eserleku igoera. Adituen arabera, diote Kataluniaren aurkako politika dela-eta igo dira PPrek Valentziako eta Madrilera botoak. Euskal Herria ala Katalunia izan da zuretzat emaitzen gakoa?**

Biak, baina modu desberdinean. PSCk egin duen kanpaina hau izan da: eurak (PP) ala gu (PSC). Kataluniak PPrekin izan duen esperientzia txarra izan da. Alde horretatik, kataluniarrek zeterrenaz jabetu dira.

**Jendeak nola erantzun du azken egunotako gertaerak direla-eta?**

Telefonoak ia kea atera du azken egunotan eta Udalean ordezkariak duten alderdi guztietako ordezkariak zoriondu egin gaituzte, PPKoak izan ezik.

**Isaias Carrascoren hilketa eta gero ere ez zuten babesik azaldu?**

Ez, PPKo ordezkaria ez da egin diren kontzentrazioetan egon. Ez dut Arrasatekoetan ere ikusi. Gainontzekoek euren berotasuna agertu digute Isaiasen hilketarengatik eta zoriondu egin gaituzte emaitzengatik. Jende asko hurbildu zait kalean, eta negar malkoak isuri ditut.

**Ezagutzen zenuen Isaias Carrasco?**

Bai, berarekin askotan hitz egindakoa naiz, eta ia egunero agurtzen nuen autopistatik pasatzen nintzenean. Zinegotzi zenean harremana genuen. Nire hirugarren legealdia da, eta bileretan, ikastaroetan... elkartu egin ginen. Askorentzat laguna zen, UGTtik ezagutzen zuten; ni CCOOtik nator.

**Ezker abertzalearen aldetik erantzunen bat espero zenuen?**

Ezker abertzaleko batzuk esan didate ez dutela ulertzen pasatu dena, eta esan didate hori PPrek onuragarri izango zela eta ezker abertzalearentzat kaltekoa zela. Baina gainontzekoak isilik daude; ez dut ulertzen hilketa honen arrazoa, familia bat sunstutzea baino ez da lortu. Kondentatzeko beste aukera bat galdu dute. Baina ez naiz beste alderdiei zer egin behar duten esaten aritu behar.

**Zein alderdirekin egin behar luke bat PSOEk Madrilgo Gobernuan?**

Alderdi batekin edo bestearekin hitzarmen bat egin beharko du. Nire ustez, akordioa BNGrekin egin beharko luke Gobernuak, Galizian ere batera gaudelako. Azken legealdian ere Madrilan ados jarri dira.

**“Udalan ordezkariak duten alderdi guztiek zoriondu gaituzte, PP izan ezik”**

**Eta EAJ-PNVrekin?**

EAJ-PNVrekin ere ados jarriko dira ziurrenik. PSOEk lortu ditu akordioak azken aldiak EAJ-PNVrekin: Pasaiako portua, Euskal Y-a... CIUK ere aukerak baditu, eta litekeena da haiekin ere akordio bat lortzea. Hiru akordio horiek egingo balira egonkortu egingo lukete Gobernu berria. Horrela, politika soziala areagotu egingo genuke, partida ekonomikoetatik abiatuta. PPrekin akordioak lortzea ez da erraza izango. Gainera bipolarizazio dinamika horrekin jarraituko genuke. Ikusi egin beharko da hurrengo hautagia nor izango den.

**Nor izan liteke ordezkaria?**

Esperanza Aguirre. Eskumarantz egingo du Alderdi Popularrak ahal duen neurrian, Acebes eta Zaplana saiatu diren moduan. Gallardonek aukera gutxi ditu.

**Aznarrek oraindik agintzen du PPN?**

Bai, eragina du eta FAESen bidez kontrolatzen du alderdia.

**Zer egingo duzue emaitza hauei etekina ateratzeko?**

Ez dugu uste dena eginda dagoenik. Horretatik lanean jarraituko dugu, herritarren alboran lan eginez. Bide bakarra lana, lana eta lana egitea da. Elgoibarko EAJ-PNV ere aldatzen ari da eta espazio berriak irekitzen ari dira herrian. Legealdirako plan bat dago, eta Ezker Batua eta Aralarrekin lanean dihardugu proposamenak egiten. Ez gara lokartuko.

## Gure berbak

### Aditza (9): NOR-NORK iragana (plurala)

Gaurkuan ere, NOR-NORK iraganeko adizkixak ikusiko dittugu, baiña objektua plurala debena. Beti bezela, erabilixenak:

- Neutruak: *Lagun batzuk **ekarri nittuan** autuan Donostiatik, **ekarri zittuan** harek, **guk ekarri genduzen**, **zuk ekarri zenduzen**, **zuek ekarri zenduezen**, **hárek ekarri zittuen**.*

- Hikakuak (giz.): *Lagun batzuk **ekarri najaittuan** autuan Donostiatik, **hik ekarri hittuan**, **harek ekarri jaittuan**, **guk ekarri genduzen**, **hárek ekarri jaittuen**.*

- Hikakuak (emak.): *Lagun batzuk **ekarri najaittonan** autuan Donostiatik, **hik ekarri hittunan**, **harek ekarri jaittunan**, **guk ekarri gendunazen**, **hárek ekarri jaittunen**.*

Aditz-forma batzuen ahoskerara bagatoz, konturatuko gara bokal arteko -j- ixa galdu egitten dala zenbaitetan; horrela gertatzen jakuz honako ahoskera hau bezelakuak: *najaittuan → na(j)(a)jittuan → najittuan*.

Beste kontutxo bat ere aittatu nahi neuke: gaur jaso dittugun formetan pluralgille derberdiñak ikusten dittugu: singularreko pertsonen formetan (ni, hi eta haura), -IT- pluralgillia ikusten dogu (*nITtuan, zITtuan...*); pluraleko pertsonen formetan, berriz, mendebaldeko -Z pluralgillia (*genduZen, zendueZen...*).

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1956

Aste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak ekarri digu. 1955-56 denboraldiko C.D. Elgoibarko zuzendaritza ageri zaigu argazkian. Denboraldi honetan Elgoibarrek 3. mailako futbol liga txapelketa irabazi zuen eta udaletxean egin zioten harrera zuzendaritzari. Bere historian beste bi edo hiru aldiz irabazi du Elgoibarrek 3. mailako txapelketa. Joan zen astebukaeran sekulako partidua jokatu zuen Azpeitiko Lagun Onak taldearen kontra eta 2-1 irabazi zuen. Hala ere, taldeak momentu gogorak bizi ditu, izan ere, ez baitago zuzendaritza taldea osatzeko jenderik. Gogora dezagun nortzuk osatzen zuten garai hartako zuzendaritzak:

Goian, ezkerretik eskumara: Cruz Arriola, Jose Antonio Aldanondo, Felix Ayesa, Sebastian Uncilla, Faustino Arregi (+), Jesus Bilbao (+), Ignacio Beloki (+) eta Ramon Maiztegi.

Behean, ezkerretik eskumara: Frantzisko Opakua, Jose Luis Arrese, Antonio Herrero, Jose Luis Eizagirre (+), Manolo Zengotita (+) eta Benito Saez (+)



## I.URTEURRENA



2007ko martxoaren 20an hil zen, 81 urte zituela, **Jose Mari Lizundia Garate** jaunaren oroimenez lehen urteurreneko meza izango da larunbatean, martxoak 15, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.





# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



## TEXTIL HOGAR · KOLTXOI DENDA

# LAGUNAK

### ESKANTZA MUNDIALA



KOLTXOI BISCOELASTIKOA

OPARIA

BURKO BISCOELASTIKOA  
FABRIKATIK ZUZENEAN!

80/90

lehen 330€

**440€**

105

lehen 645€

**535€**

135

lehen 720€

**599€**

150

lehen 820€

**685€**

\* 2 M. LUZERAKO OHAN 9/10 OZKARAO

## LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

# EDURNE EPELDE

Bilgune Feministako kidea



Edurne Epelde apirilaren 13 eta 14an Portugaleten egingo diren Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministaren nondik norakoak aurkezten ari da herriz herri. Aste honetan Elgoibarren izan da. Jardunaldien helburua eztabaidatzea, planteamendu berriak aztertzea eta emakumeen artean elkarlanerako aliantzak sortzea da. Eztabaidetz gain, tailerrak eta erakusketak ere izango dira. Informazio gehiago [www.jardunaldifeministak.org](http://www.jardunaldifeministak.org) gunean eskura daiteke.

## “Jardunaldiek harrera ona izan dute eta emakumeak eztabaidatzeko gogoz daude”

**Jardunaldiak herriz herri aurkeztu dituzue. Nola joan da dena?**

Laugarren Jardunaldi Feministek harrera ona izan dute oro har eta aurkezpenetan garbi ikusi dugu emakumeak eztabaidatzeko gogotsu daudela. Urteak aurrera joan ahala emakumearen egoera aldatu arren, oso arriskutsua da hobetu dela esatea. Planteamendu ezberdinak egin ditugu eta aurrerapausoen inguruko eztabaida luzea dago irekita. **Aurreko jardunaldiak orain dela 13 urte izan ziren. Orduetik hona, zertan aldatu da mugimendu feminista?**

Leioan 1994an egindako jardunaldi haietan mugimenduaren inflexio puntua izan ziren. Eztabaida sutsuak izan ziren bertan eta feminismoak bide ezberdinak hartu zituen. Batetik, instituzioetan eta maila akademikoan garatutakoa zegoen. Bestetik, “kaleko feminismoa” deitzen zitzaiona, batez ere neska gazteek erreleboari eutsi nahi izan ziotena. Krisizat jo dezakegun garai hartan emakume askok emakumeen antolakuntza alde batera utzi eta beste esparru batzuetan jarraitu zuten feminismoa. Mugimenduek oro har beherakada izan dute. Mugimendu feminista oso jendetsua ez den arren, bizirik dago eta planteamendu txukunak mahaiganeratzeko ditu. Hala ere, mugimendu horren eragina jendartean ez da guk nahi genukeen bezain handia.

**Zaintza, prekaritatea, interkulturalitatea eta partehartzea landuko dituzue. Horren inguruan zer planteatzen du mugimendu feministak?**

Gai asko landuko dira Portugaleten. Hainbat taldek hilabete lehenagotik gai bakoitzaren inguruan dituzten planteamenduak ponentzia formatuan aurkeztuko dituzte. Horiek guztiak [www.jardunaldifeministak.org](http://www.jardunaldifeministak.org) atarian egongo dira zintzilik. Euskal Herriko mugimendu feminista bat izan arren, feminismoa egiteko modu ezberdinak daude.

**Indarkeria sexistaren gaiak ere lekua izango du jardunaldiotan. Zer egin daiteke behin betiko amaitu dadin?**

Sistemaren antolaketa orokorraren iraulketa behar da, sistema neoliberal kapitalista eta patriarkal honetan, indarkeria boterearen tresna baita menpeko harreman horiei eusteko. Beraz, indarkeriarekin amaitzea luzerako lana izango da, baina une honetan neurri eta politiken inguruko eztabaida egin behar da.

**Horrez gain, emakumeen identitateei buruzko atala ere prestatu duzue. Zeri buruzkoa izango da atal hori?**

Atal horretan, sexualitatea, *queer* teoria, abortua eta eskubide erreproduktiboak eta abar landuko ditugu. Batzuk feminismoaren ikuspegi berriak eskainiko dizkigute, eta guztiak interesgarriak izango dira.

# Luis Cerron elgoibartarrak “Friego, luego existo” liburua aurkeztuko du Kultur Etxean gaur, barixakua

Luis Cerron elgoibartarrak idatzi berri duen liburua izen hau dauka: “Friego, luego existo. Reflexiones desde la cocina”. Gaur, barixakua aurkeztuko du Kultur Etxean, 20:00etan.

Haizea emakume taldeak aurkezpen ekitaldira joateko deia egin du. Izan ere, andre-gizonen arteko berdintasun eta errespetuaren inguruko saiakera da. Cerronek berak gaur aurkeztuko duen liburua zera dio bere blogean: “Filosofia ikasketak eta sukaldeko lanak uztartzen ari nintzela sortutako gogoeten ondorioa da honako saiakera sasi filosofiko-psikopedagogikoa”.

## Berdintasuna

“Emakume berriek eskemak hauste-ko ahalegina egiten dute, eta benetako elkarbizitza oraindik galerazten duten kultur tranpa guztiak erakutsi nahi dituzte”, dio Cerronek liburuan. Zorionez, proiektu horrekin gero eta gizonezko gehiagok bat



egiten dute, Cerronen arabera.

Liburuak hamar euroko salneurria du. Orain arte [lcerron@teletel.es](mailto:lcerron@teletel.es) helbidean eskuratu ahal izan da. Bidalketa gastuak 4 eurokoak dira.

## Dantzari elgoibartarrek arrakasta izan zuten Beasaingo auresku eta soinu zahar txapelketan



Joan zen astean Beasainen izandako auresku eta soinu zahar txapelketan sekulako maila erakutsi zuten Elgoibarko Dantza eta Musika Eskolako ikasleek. Ane Espillak eta Nora Kortaberriak, esaterako, lehen postua eskuratu zuten baikoitzak bere mailan. Elgoibarko saioa apirilaren 12 eta 13an izango da.

## Domekan “Haur Kabareta” eskainiko du Agerre teatroak

Musika eta antzerkiaren bidez bi neskatilen arteko adiskidetasuna kontatuko da domekan Agerre Teatroak eskainiko duen antzezlanetan. *Haur Kabareta* izeneko lana Herriko Antzokian izango da ikusgai, 16:30etatik aurrera. 5etik 12 urtera bitarteko umeei nagusi egitearen prozesuaren inguruan hitz egiten die *Haur Kabaretak*. Horretarako, musika, ipuinak, txotxongi- loak eta antzerkia nahastu egiten dira. Gainera, ikusleen partehar- tzea du ikuskizunak.

## Mikel Urdangarin kantariaren kontzertua apirilean

Mikel Urdangarin bakarlariak Herriko Antzokian kontzertua eskainiko du apirilaren 18an, Herriko Antzokian, 22:15etatik aurrera. Urdangarinek *Anek idatzi dit zutaz* azken diskako kantuak eskainiko ditu. Elgoibarko Udalak kontzertuko sarrerak salgai jarri ditu. Goizez Euskara Sailean eskuratu ahal izango dira, eta arratsaldean Gazte Informazio Bulegoan.

## Iazko urtea ona izan zen IMHko euskara planarentzat

Erreminta-makinaren sektorean euskararen erabilera sustatzeko oinarritzko urratsa da *Goazen* Euskara plana IMH institutuan. Iazko planaren balantzea egin berri dute eta, ikastetxeko arduradunen esanetan, “2007 urtea ona izan da IMHren erabilera-planarentzat”.

  
**URKIDI**  
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi  
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12



**Malape taberna**  
Orain astegunetan



San Frantzisko, 60  
tel: 943 74 19 43

© Malape  
Elgoibarko 701345

# alire estetika

Gaur, martxoak 14,  
zabalduko dugu.

Denok gonbidatuta zaudete  
lunch batera, arratsaldeko  
18:00etatik aurrera

Etorri eta opari bat  
emango dizuegu

## TRATAMENTUAK

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak  
(zelulitis aurkakoak, erreduktoreak)
- Ongizate tratamenduak
  - Masajeak
- Depilazio laserra, elektrikoa, argizarizkoa.
  - Mikropigmentazioa
  - Manikura
- Hantetako estetika
  - Solariuma
- Medikuntza eta kirurgia estetikoak

## Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera  
09:30 12:30 / 15:00 - 20:00

Asteazkena: 09:30 - 19:00

Larunbata: 10:00 - 13:00

Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636  
Elgoibar

## Pilota Eguna giro onean jokatu zen ikastolan

Guztira 64 neska-mutilek parte hartu zuten



**P**asa den zapatuan ikastolako frontoia ilusioz bete zen eta 1994 eta 2001 urte bitartean jaiotako gaztetxoak gustura aritu ziren pilotan jokatzeko. Jokoa zeuden hamasei partidak hamabi tantora jokatu ziren, eta aldi honetan ere parekotasuna bilatu zen pilota bultzatzea helburu duen ekitaldian.

### Esker ona

Ikastolak bere esker ona adierazi nahi die joan den larubatean, martxoaren 8an, egin zen XI. Pilota Eguna antolatzen lagundu zieten guztei, hala nola Euskadiko Kuxari babesa eskaintzegatik eta Elgoibarko Pilota eskolako arduradunei, eta bide batez, parte hartu duten neska-mutil guztiei.

## Morkaikok Madametera gerturatzeko saiakera egin zuen joan den domekan

Madametontorrera gerturatu ziren Morkaikoko zazpi lagun eski-trabesia egin nahian. Eguraldia lagun izan zuten hasieran eta pasa den domekan, martxoaren 9an, Gavarnie pistatik S'Andre tontorrera heltzeko asmoz irten ziren. Lepora iristeko zirela, lehenengo elur malutak agertu eta atzera buelta egitea erabaki zuten. Dena den, azaldu dute astebukaera "biribila" izan zela.



# IMH-Sanloko neskek Euskadiko txapelketa irabazi dute kadete mailan

Eskubaloiko liga amaitzeko partida baten faltan lortu du



Liga txapelketa amaitzeko partida baten faltan, IMH-Sanloko nesken eskubaloi taldeak Euskadiko Txapelketa irabazi du. Pasa den urtean ere garaipena lortu zuten elgoibartarrek.

Kukullagak, ligaxkako bigarren sailkatuak, 33 eta 26 galdu zuen zarauztarren aurka zapatu goizean (martxoak 8). Hortaz, IMHko neskek bazekiten arratsaldean Basauriren aurka Olaizaga kiroldegian jokatu beharreko partida irabaziz gero, txapelkun izango zirela. Eta ez zu-

ten hutsik egin. Bizkaitarren aurkako norgehiagokan hasieratik bukaeraraino nagusitu ziren 25 eta 13ko emaitzarekin.

## Espainiako txapelketara

Euskadiko txapelkun berriak kadete mailako Espainiako Eskubaloi txapelketa jokatu du maiatzaren 16, 17 eta 18an. Oraindik zehazteke dago non jokatu den. Sanlo ETK webgune berria ([www.sanlo.net](http://www.sanlo.net)) jarri du martxan albisteak eguneratzen joateko.

## Marimendi taldeko kideek hitzaldia eskaini zuten eguaztenean

Uztailean Elbrusera, Europako gailurrik altuenera, igotzen saiatuko da Marimendi, 40 urtetik gorako emakume mendizale euskaldunen taldea. Bien bitartean hitzaldiak ematen ari da Euskal Herrian. Elgoibarren pasa den martitzenean egon ziren taldeko nagusienak Kultur Etxean "Kirola zahartze osasuntsu baterako bidea" izeneko hitzaldia eskaintzen.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Lagun onak 1

Elgoibar 2 – Touring 2 (kadeteak)

Elgoibar 0 – Ostadar 2 (infantilak)

Elgoibar 7 – Anaitasuna 3 (alebinak)

Lagun onak 1 – Elgoibar 1 (erregionala)

Arrasate 3 – Elgoibar 4 (jubenilak)

Intxaurren 3 – Elgoibar 2 (infantil txiki)

Ostadar 1 – Elgoibar 0 (neskak)

### ARETO FUTBOLA

Kenci 2 – Lakunza 4 (euskal liga)

Zarauz 4 – Elgoibar 3 (jubenilak)

### ESKUBALOIA

Zuazo 23 – Tecnifuelle 27 (senior neskek)

Pneumax 33 – Askartza 23 (jubenil mut.)

Tecnomeca 8 – Askartza 43 (kadete mut.)

IMH Elgoibar 25 – Basauri 13 (kadete neskek)

Cometel 21 – Leizaran 23 (jubenil neskek)

Leizaran 7 – Aterpe 21 (infantil neskek)

Urnieta 20 – Caldereria Lili 12 (infantil neskek)

Toki Alai 28 – H. Txariduna 32 (infantil mutilak)

Arizmendi 14 – Bankoa Elgoibar 21 (infantil mutilak)

Casa Astigarraga 16 – Lezo 13 (infantil neskek)

## AGENDA

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

17:30 Tecnifuelle – Askartza (senior neskek)

## LANA

### ESKAERA

- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu... Goizez **699 690 190**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. **638 338 816**
- Neska gaztea, edozein lan egiteko prest. **677 300 105**
- Frantses partikularrak ematen dira. **664 126 273**
- Bi irakasle, partikularrak emateko prest, LH, DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. **653 717 972**
- Mutil gaztea, banatzaile lanetarako prest. Badaki euskaraz. **620 049 420**

- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, tabernan zerbitzari, garbiketa lanetarako... **680 250 527**
- Neska, garbiketa lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernan zerbitzari izateko prest. **649 368 137**
- Neska, lanerako prest. **658 400 556**

- Neska, nagusiak edo garbiketa lanerako prest. Baita tabernan zerbitzari aritzeko ere. **678 939 382 / 649 212 944**
- Neska, nagusiak edo garbiketa lanerako prest. **646 821 678**

- Ingeniaritza titulatuak matematikako eta kimikako eskola partikularrak emango lituzke lauko taldeetan. **605 737 523**

- Neska gaztea, 12:00etatik 18:00etara lan egiteko prest, orduka. **659 866 116**
- Neska, nagusiak zaintzeko prest, bakarrik arratsaldez edo gauzez, orduka ere bai. **671 476 869**

- Neska, tabernan lan egiteko, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. **686 234 612**
- Neska, sukaldian laguntzaile edo nagusiak zaintzeko prest. **699 813 826**

- Bi neska gazte tabernan zerbitzatzeko, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. **696 665 304**

- Gizon gaztea edozein lanetarako prest: peoi, zaintzaile, sukaldari laguntzaile... Ingelesez ere badakit **697 538 610**

- Mutila, lan egiteko prest. **680 250 527 / 943 53 15 45**
- Neska, orduka lan egiteko prest. **680 250 527 / 943 53 15 45**

- Mutila, nagusiak zaintzeko, sukaldian laguntzaile aritzeko edo garbitzaile izateko prest. **608 400 998**

### ESKAINAZA

- Neska arduratsua behar da umeak zaintzeko. **943 74 29 66**

- Haur Hezkuntzako 1. ziklorako (0-3 urte) teknikarien lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira. **elgoibar@ikastola.net**

- Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. **943 74 31 96**

- Sukaldaria behar da Mendaroko kafetegia batean. **943 03 01 50**

- Artikuluak katalogoz saltzeko prest dauden lagunak behar dira. Diru-sarrerara ona. Esperientzia ez da beharrezkoa. **607 824 892**

- Emakume euskalduna behar da nagusi bat ordu batzuetan zaintzeko. Beharrezkoa da autoa edukitzea. **699 217 721**

- Margolari autonomoa behar da. Gutxienez bi urteko esperientzia. **690 005 800**

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

- Urasandin pisua salgai. Hiru logela, egongela, jangela, komuna, sukaldia eta trasteroa. 89 m<sup>2</sup> **607 743 068**

- Etxea salgai Sigman. 60 m<sup>2</sup>, logela bi, egongela, komuna, sukaldia handia balkoiarekin. Berritua eta oso eguzkitsua. **636 274 420**

- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukaldia berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altzariekin saltzen da. **628 115 677**

- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia, komuna, jantokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sartzeko modukoa. Prezio interesgarria **615 769 650**

## GARAJEAK

- Motorra gordetzeko garajea alokatzeko da Santa Clara auzoan. **653 717 972**

- Garaje itxia salgai pista beltzean. **943 74 23 06**

## MOTORRA

- Renault Espace salgai. 7 eserleku. 2.200 diesela. **695 730 442**

- Opel Tigra salgai. 80.000 km. Egogorra onean. **646 742 465**

- Autoa salgai, Suzuki Vizara, hiru ate, 1.9. diesela, 2000. urtekoa. **943 25 43 66** (14.00etatik aurrera deitu) / **654 949 123**

- Motorra salgai Schooter Aiyumo, 125 cc. ditu; sei hilabete eta bermearekin. **670 957 036**

- Motorra salgai 49 cc. eta 1.000 kilometro. 2007ko abuztuan matrikulatua. Osagaiak: kaskoa, doan lapurretan aurkako kandaia, atzealdeko arkoa. **663 117 444 / 943 74 40 31**

- Ford Focus 2.0 16v. 130 zaldi. Llantak, Pionner irratia, beltz metalizatua, egoera oso onean. 5.500 euro negoziatagarriak. Transferentzia nire kontu. **660 056 240**

- Citroen saxo diesela salgai. **639 572 532**

- Mutrikun ezarritako karabana salgai. Extra asko. **943 74 39 23 / 629 415 984**

- Karabana salgai. 7 metrokoa, kalefakzio eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukaldia osoa kanpoan. Mutrikuko Santa Elena kanpian jarrita dago. **652 750 361**

- Ford Focus Berlina salgai, TDI, 2001. urtekoa. **630 151 231**

## BESTELAKOAK

- Pisu txikia behar da Elgoibarren alokatzeko. **699 637 269**

- Erdigunean dagoen taberna alokatzeko da jabearen erretiroa dela-eta. Terraza du. **943 74 28 97**

- Neska behar da Mendaroko pisua konpartitzeko. Erreferentziak eskatzen dira. **636 690 861**

- Alemaniko 19 urteko neska batek bi hilabeteko egonaldirako familia behar du *au pair* egoteko. **635 706 537**

- Eraztuna galdu da, balio sentimental handikoa, Jai Alai tabernan otsailaren 23an. Aurkitu duenak udaltzainei laga diezaiela. **943 74 44 83**

- Balkoi batetik erori da kamiseta polar gorri-naranja. **943 74 18 34**

- Zero Sette trikitiña erosiko nuke. **655 742 836**

- Garaiurrak grabatzeko hiru makina frantziar saltzen dira. Galagarza Erlondandand salgai.

- Pisua konpartitzeko laguna behar du. **610 458 552 (Nerea)**

- Deban alokairurako pisua behar du. **636 690 861**

- Pisu txiki baten bila gabiltza alokairuan hartzeko Elgoibarren. **699 637 269**

## ABISUAK

- Urre zuriko ezkon eraztuna aurkitu dut Pedro Mugaruzan. **637 532 824**

- Erretxindin argazki kamera lapurretan egin zuten hilaren 12an, arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak bitartean. Txartela duenak laga dezala Correoseko 178 posta-kutxan.

- Sofa bat eta bi besaulki oparitzen dira, multzoan. Baita ohe handi bat ere. Galagarza erloju-dendan galdetu.

- Baratza konpartitu nahi dut, alde zaharretik gertu dago. Ura du, samurra eta lan egiteko eremintak. **655 723 678 / 943 74 39 19**



## BEKAK

### DOKTOREGOIA

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Ikertzaileak presatzeko laguntzak, doktorego-tesi bat egin nahi duten Unibertsitateko goi-mailako tituludunentzat.

Epea: apirilak 1.

### DIRU-LAGUNTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua. Haur, Nerabe eta Gazteen arloan proiektuak egiteko 2007ko diru-laguntzak abian dira. Informazio gehiago: 900 11 01 11 (arratsaldez, aholkularitza).

## EKINTZAK

### TOPAKETA

Kaeb-Nai Elkarteak "Gazteak elkarbizitzen ikasten" topaketa antolatuta du: rol jokoak, globofexia, kaligrafia... izango dira martxoaren 15ean Gaztegunen (Anoeta 28, Donostia) goiz eta arratsaldez.

## IKASTAROAK

### FUNK & HIP HOP

Orthos Gipuzkoa. Funk & Hip Hop irakasle izateko ikastaroa egingo da Donostian. Epea: martxoak 14.

### ARTELEKU

Arteleku. "Adierazpen radikala: serigrafia, praktika artistikoa, DIY kultura, feminismoa, lan kolektiboa". Plaza mugatuak. Epea: martxoak 14.

## LEHIAKETAK

### GOMENDIO LEHIAKETA

Gomendatzen dizut, merezi du lehiaketa. Gipuzkoako hainbat Gazte Informazio Bulegok parte hartzen dute. Informazio gehiago [www.aizue.com](http://www.aizue.com) blogean. Epea: irailak 30.

## ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan. e-posta: [gib@elgoibar.org](mailto:gib@elgoibar.org) **943 74 14 61**  
 Martxoak 17tik 28ra itxia egongo da. Martxoak 31tik aurrera, ordutegi berria. Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan: 11:00etatik 13:00etara  
 Astelehenerdik ostiral arratsaldetan: 16:00etatik 19:00etara.




• Zorionak, **Markel**, 3 urte egin dituzulako. Muxu handi bat Eritz eta familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Haizea**, onena zara... Hori, onena zara eta listo! Patxo handi bat politt horrek!



• Zorionak, **Nekane**, 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxeko eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Anton**, bi muxu handi zure gelako laguntxo guztien partez.



• Zorionak, **Unaitxo**, zure lehenengo urtebetetzear!



• Zorionak, **Beñat**, hilaren 23an 3 urte egingo dituzulako.



• Igandean 4 urte handi potxolo. Zorionak etxeko guztien eta bereziki Alainen partez.



• Zorionak, **Ixaso**, domekan 17 urte egingo dituzulako. Etxeko partez.



• Zorionak, **Xuban**, 5 urte atzo egin zenituelako. Etxeko partez.



• Zorionak, **Ion**, hiru urte beteko dituzulako. Muxu bat etxeko partez.



• Zorionak, **Ion**, zazpi urte egingo dituzu-eta. Muxu bat familia guztiaren eta bereziki etxeko partez.



• Zorionak, **Julen**, 12 urte egingo dituzulako. Zure familiaren partez.

## OSPAKIZUNA SALLOBENTEKOAK SAGARDOTEGIAN



Ermuaran-Sallobente auzokoak sagardotegi giroan ibili ziren martxoaren 1 ean, eta argazki hori bidali digute: "Dagoeneko bigarren urtea da horrelako irteera bat antolatzen duguna eta arrakasta izugarria duenez, urtero egiten jarraitzeko asmoa daukagu. Aurten Lizeaga sagardotegia tokatu da. Autobusean joan ginen bertara eta bazkaldu ondoren, Astigarraga aldean ibili ginen. Gauean herrira itzuli ginen eta bertan jarraitu genuen parrandan. Datorren urtean ere, aurten bezala, jende ugari apuntatzea espero dugu".



• Zorionak gure etxeko neska handiari, 10 urte egin dituzulako.



• Zorionak, **Maia**, gure Bartzelonako artista, 2 urte egingo dituzulako.



• Zorionak, **Danel**, 10 urte egingo dituzulako, familieren eta Naiaren partez.



• Zorionak, **Mireia eta Ixaso**, hilaren 5 ean eta 16an dirrelako, hurrenez hurren, zuen egunak. Muxu asko potxolitas!

**OKINDEGIAK**

16 domeka **BOLINTXO**      22 zapatua **IBARRENA**  
 19 eguaztena **D. MERCEDES**      23 domeka **BOLINTXO**  
 20 eguna **EZAGIRRE**      24 astelehena **D. MERCEDES**  
 21 barixakua **FOTERO**

**FARMAZIAK 24 ORDUZ**

14 Bidasolo	21 Etxeberria (Santa Ana)
15 Etxeberria (Santa Ana)	(*Goizez Fernandez)
16 Etxeberria (Santa Ana)	22 Yudego
17 Fernandez	(*Goizez Ibañez)
18 Yudego	23 Ibañez
19 Etxeberria (Santa Ana)	24 Ibañez
20 Bidasolo	25 Bidasolo
(*Goizez Fernandez)	26 Yudego
21 Etxeberria (Santa Ana)	27 Zabaleta
(*Goizez Fernandez)	28 Etxeberria (Errosario)

**Escala**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
 Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)  
 Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
 Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO GEHIAGO:**



Egin klik [www.elgoiBARREN.net/en](http://www.elgoiBARREN.net/en)

**14 barixakua**

**17:00 Sukalde txokoa**

Gaztelekuan.

**20:00 Aurkezpena**

Luis Cerronek "Friego, luego existo. Reflexiones desde la cocina" liburua aurkeztuko du. Kultur Etxean.

**21:30 Topagunearen batzarra**

Batzar irekia Gaztetxean.

**22:00 Bideo Forum-a**

Los lios de Gray filma Kultur Etxean  
 Hizlaria: Eskarne Larrinaga.

**15 zapatua**

**12:30 Omenaldia**

Fernando Bert preso ohiari omenaldia egingo diote Plaza Handian. Ondoren, bazkaria.

**22:00 Kontzertua**

Koelho104 Gaztetxean.

**16 domeka**

**16:30 Haur kabareta**

Agerre Teatroak haur kabareta eskainiko du Herriko Antzokian.

**18:00 Gaztelekuan topaketa**

Paradisu zinemara joateko.

**18:30 Paradisu zinema**

Gaztetxean.

**25 martitzena**

**10:00 Irteera**

Donostiako Kristina Enea parkera eta Igeldora. Ludotekatik.

**26 eguaztena**

**9:00 Irteera**

Atxutxiamaikak antolatuta, Sastarrain berrira egingo dute irteera LH3 eta LH4ko ikasleek.

**16:30 Eskulanak**

Ludotekan.

**9:00 Irteera**

Atxutxiamaikak antolatuta, Lekunberriko soka zirkuitora egingo dute irteera LH4 eta LH5eko ikasleek.

**27 eguena**

**16:30 Sukaldaritza tailerra**

Ludotekan.

**28 barixakua**

**9:00 Irteera**

Atxutxiamaikak antolatuta, Irungo Plaiaundi parke ekologikora egingo dute irteera LHko ikasleek.

Burdindegia Etxea

**MIG**

**Lokal aldaketa!**

Tel.: 943 740 831  
 Saltoki berria: Trenbide kalea 9

Giltzak - Etxeko menajea

**Lanbroa**

**Gosariak  
 Pintxoak  
 Bokatak  
 Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.  
 Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



<b>«Expiación»</b>	<b>«El amor en los tiempos del cólera»</b>	<b>«Asterix en los juegos olímpicos»</b>
14, barixakua: 22:15	19, eguaztena: 19:00	22, zapatua:
15, zapatua: 19:00-22:15	20, eguena: 19:00/22:15	19:00/22:15
16, domeka: 19:00-22:15	21, barixakua: 19:00/22:15	23, domeka: 16:30/19:00
17, astelehena: 21:30	24, astelehena: 21:30	

# Gure gomendioa

## Bideo Forum-a

*Los lios de Gray*, gaur 22:00etan Kultur Etxean

Haizea emakume taldeak antolatuta, bideo forum saioa izango da gaur, martxoak 14, Kultur Etxeko hitzaldi gela. *Los lios de Gray* pelikula aukeratu dute oraingoan. Komedia erromantikoa da, homosexualitatea eta eguneroko bizitzan aurrera egiteko gaiak jorratzen ditu. Pelikula amaitu ondoren, Eskarne Larrinagarekin solasaldia izango da.

ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK							
	Hilak 16 Erramu lgandea	Hilak 17 Astelehena	Hilak 18 Asteartea	Hilak 20 Ostegun Santua	Hilak 21 Ostiral Santua	Hilak 22 Pazko gaubela	Hilak 23 Pazko lgandea
<b>PARROKIAN</b>	10:30 Meza 12:00 Erramuen bedeinkazioa, prozesioa eta meza	19:00 Adiskidetze ospakizunak (euskaraz)	19:00 Adiskidetze ospakizunak (gaztelaraz)	10:00/12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurre- ko otoitza	18:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:00 Pazko gaubela	10:30 Meza eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
<b>SAN FEDRON</b>	10:30 Erramuen bedeinkazioa eta meza	---	---	---	---	---	10:30 Hitzaren liturgia
<b>SANTA KLARAN</b>	9:00 Erramuen bedeinkazioa eta meza	---	---	17:00 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurre- ko otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 17:00 Jesusen herio- tza ospakizuna	21:30 Pazko gaubela	9:00 Meza
<b>MADALAN</b>	---	---	---	17:30 Azken afariko ospakizuna	10:30 Gurutz bidea	---	---
<b>SAN MIGUEL</b>	11:30 Bedeinkazioa eta meza	---	---	---	---	---	11:30 Hitzaren liturgia
<b>SAN LORENTZON</b>	10:30 Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren liturgia	---	---	18:30 Azken afariko ospakizuna	---	---	10:30 Meza
<b>SAN ANTOLIN</b>	11:30 Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren liturgia	---	---	---	---	---	11:30 Hitzaren liturgia



**klik - klak**

## **iratxe astigarraga**

**Jolas-ordua bukatu da. Ikasgelan egon beharko zenuke, ezta?**

Bai, berandutu egin zait.

**Zer egiten duzue errekreo garaian?**

Erre eta lagunekin hitz egin, bereziki zapatu gauaren inguruan.

**Debakoa zara. Elgoibarren irteten zarete?**

Bai. Lehenengo litroak egiten ditugu. Gero hirurak arte egoten gara.

**Etxean jarritako ordutegia errespetatzen duzu?**

Bai, nire amak jartzen du ordua.

**Deban entzute handikoak dira Elgoibarko zapatuak?**

Esaten dute taberna batzuetan droga saltzen dutela, baina guk paso egiten dugu.

**Nolakoa da Elgoibarko jendea?**

Jatorra.

**Imajinatu internetik eta segapotorik gabe zaudela. Zer egingo zenuke?**

Beti nago Messenger-ean sartuta, eta mezuak bidaltzen ditut segapotorik. Engantxaturik gauda gazteok.

**Hamar urte barru, nola ikusten duzu zure burua?**

Ikasketak eginda, eta lanean. IVEF egitea gustatuko litzaidake. Futbolearen ere jokatzeko dut; aurrelaria naiz. Mutrikuko taldean nago, eta datorren urtean Elgoibarren jokatu nahi nuke.

**Gurasoen etxean ikusten duzu zure burua?**

Amak utzitako etxean.

**Noiz arte izango zara gazte?**

25 urte arte-edo.

**Berekoia zara?**

Ez, koadrilakoak gogoan ditut.

**Zenbat zarete koadrilan?**

Hamar.

**Miresten duzu ezagunen bat?**

Ez.

**Euskaraz nahikoa hitz egiten da Elgoibarren?**

Bai, Deban baino gehiago.

**Zer aldarrikatu nahi duzu?**

Euskal Herriaren independentzia.

## **ATXUTXIAMAİKA AISIALDI TALDEAK HEZITZAİLEAK BEHAR DITU UDAN LAN EGİTEKO**

Interesatuok curriculumak bidali, apirilaren 18a baino lehen, e-posta honetara:

[atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com](mailto:atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com)

Tel.: 943 74 16 26 (Ainara edo Ione)



Zure Chevrolet Captivak zoriontsu egingo zaitu.  
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.



**CAPTIVA** Chevrolet markako edozein auto erosi, hilabete edo 5.000 kilometro daukazu egindako erosketan zure izan dela baieztatuko. Captiva, ondorengo bertelak: 5 edo 7 janelak, ESC, iraultzetik babesteko kontrola, bolaxta-erregulazioa, jantziak kontrolatu, truka-kontrola, C alai-palua eta aparkamendu-sentzorea. Bertelaren arabera erabakia erabakia. Autoarekin gutxira ez bazara gertatzen, dirua bueltatuko dizugu, eta beste marka bateko autoa erosi nahi baduzu ere bueltatuko dizugu dirua Chevrolet Captiva, zure interesarekin batera.

**CAPTIVA**  
Diesel motorrak: 127 ZP eta 150 ZP  
Gasolina motorrak: 136 ZP eta 230 ZP  
5 urteko bermea  
24.600€-tik aurrera

GEHIAGO DA.



CHEVROLET

Glauto Elbar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@glauto.es • www.glauto.es  
Glauto Olaberria • Karoli Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@glauto.es • www.glauto.es

Prezio kalkulatuak Permisioan eta Baleran erabiltzen dira. Captiva 2.4 L 5 Bermearen erabilera (BEZa rustifikazio zerga gertatzen eta promozioa bane). Erabiltzaile bakoitzak hilabete bakoan erosi. Komunikazioa (1000km) 72-85. Ozeanikoa (9km) 58-264. Eta 5 urteko bermea 3 urteko bermea (3 urteko edo 100.000 kilometroko kilometroko muga ez da lehen bi urteetan aplikatzen). 25/2005 bermearen legearen arabera eta hori zure gertu betar zakezu. Chevrolet 5 urtekoak erabiltzen dituzten konsumatzaileen babestuz.

D-graffen zure logotipoa eta irudi korporatiboa sortu eta kudeatzen dugu, zure enpresa edo dendaren izaera eta nortasunera moldatuz. Eskatu informazioa 943 74 12 59 telefonoan, zuen esanetara gaudete edozein kontsultarako.

**ZURE IRUDIAREN  
DISEINUA SORTZEN DUGU !**

e-mail: d-graff@d-graff.com  
www.d-graff.com

Santa ana, 8  
20870 Elgetbar | Gipuzkoa  
Tel. Fax 943 74 12 59

**dgraff**  
COMERCIAL GRAFICOS

DISEINUA

MINIBOOK... LOGOTIPOAK



# 6. EDIZIOA

# IMH SARIAK

Ikasle ohi aipagarria  
2007-2008eko ikaslea  
Fabrikazio Arloko ikaslea,  
2007-2008 ikasturtea



## ■ Helburua

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

## ■ Ikasle ohi aipagarria proposatzeko

- Telefonoz: 943 74 82 65 (Amaia Ansola)
- Internet bidez, [www.imh.es](http://www.imh.es) webean aurkituko duzun formularioa beteta. Baldintzak eta informazio gehiago [www.imh.es](http://www.imh.es)

Babesa



Kolaborazioa

AGME • ALCORTA BROCKHAUS • AUTOMATION ORIA • BERDIN • BIAL MEKANIZAZIOAK • BIELE • CAR SUMINISTROS INDUSTRIALES • CRISTALUX LIMPIEZAS • ENGRANAJES GRINDEL • GAINDU • GLUAL HIDRAULICA • GORATU • GRUMAL • IBARMIA • ILS • IMS CONSULTORES • INDUSTRIAS • ALGA • INDUSTRIAS KOKATU • INDUSTRIAS LAIP • INDUSTRIAS METALA • INTZA • JLFRENCH ANSOLA • LABORMAN • MAFISA • MAZA • MECANIZADOS GURRUTXAGA • OCE • ONA ELECTROEROSION • PIERBURG • PIXEL SISTEMAS • REYMA • SAMMIC • SIERRAS SABI • SPICER AYRA CARDAN • T.M. NORMA • TALLERES AIBE • TEKNIKER • ZARAZKO-BI



Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar, Gipuzkoa - Tfnoa.: 34 943 748 265 - 34 943 744 132 - Faxa: 34 943 744 153

[imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) - [www.imh.es](http://www.imh.es)